

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Aierbe Iraola

*Donostia,
Gipuzkoa
(1934-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Altzako Ubegi baserrian jaioa, gazterik trebatu zen baserriko lanetan. Bost senide ziren. Aita Gaintzakoa zuen, eta Goierri ikasitako lanak ere egiten zituen: erlezaintza, sokak egitea, behi gazta eta gurina... Martutenera joan zen eskolara. 18 urterekin arotz lanetan hasi zen Joxe. Afrikan soldadu zegoela hasi zen bertsoak idazten, baina zaletasuna umetatik zetorkion. Aita, ama eta aitona bertsozaleak ziren oso. Bertso zaharrak kantatzea normala zen etxean, eta baita aita bertsoan jardutea ere. 33 urterekin istripu larria izan zuen, eta denbora luzez egon zen mugitu ezinik; idazten jarraitu zuen. Basarriri bidaltzen zizkion bertsoak, hark irratian kanta zitzaizkion. Bera ere ibili zen irratian lanean, baita Diario Vasco egunkarirako kronikak egiten ere. Euskaraz alfabetatu ondoren, eskolak ere eman zituen. Bi liburu ditu argitaratuta Auspoa argitaletxearekin. Loiolara ezkondu zen.

Zintak

DON-040

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-21
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze - Etxeberria, Idoia - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Baserriko lanetan umetatik, eskolatik bueltan

- **Erref:** DON-040/002
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:05:22

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Oso umetatik hasten ziren baserriko lanetan, Jaunartze Txikia egitean. Jaunartze Handia, Altzako parrokiari. Eskolan, Martutenen. Guardak bidaltzen zituen etxera. Eskolara joan gabe ere geratzen ziren, lanean txandaka.</p>

Transkripzioa

- Baserriko bizimodua hala zan garai hartan. Zutik ibiltzen hasteko unetik ez det esaten, baiña oso... komuniyo txikiya iten zan ordun 7 urtekin. 7 urtekin komuniyo txikiya ta: "Komuniyua in dek eta enkarguk iten ta laguntzen-ta hasteko ordua dek". Gero komuniyo haundiya, berriz, 11 urtekin. Ta komuniyua Altzan, Altzako herrian egin nuen nik, eta nere senideak ere bai. Gaztenak ez dakit, baiño zaharrenak behintzat bai. Hiru zaharrenok Altzan. Parrokiya Altxa tokatzen zan gurea ta han in genun komuniyua. Eta orduako, ba, orduako behiyak jezten, segan ta... 11 urteako baratzen ta edozertan, aitai laguntzen ta. Bai. Eskolatik etorri zai egoten ziran etxean, lanak egiteko. O belarrak bildu o baratzen... baratza landu... beti bazan zerbait baserrian laneako, gogua izan ezkeo. Askotan gogo haundiik ez genun izaten, baiña. Bai. Gogoratzen zait eskolatik irten... Eskolaa juten giñan Martutenera. [Sarrueta] o eskola bat bazan. Loiola baiño alderago zegolako edo ez dakit zergatik han hasi giñan eskolan. Ta eskolatik arratsaldian bostetan edo lau t´erditan edo ez dakit noiz irteten giñan eta, klaro, jolasean gu, han kuadrilla, jolasean. Eta guarda bat bazan Martutenen eta nunbait etxeak abisua emanda edo, etxekuen enkarguz edo, han etortzen zan bere bastoiarekin gu etxera joan gintezen, etxera bidaltzea: "Ala! Segi etxea hemendikan! Aita ta ama zai zeudek ta segi etxea!" Ta gu kaniketan edo pelotan edo edozein jolasetan han, ta etxera. Bai. Ta etxian zai egoten zian. "Bai, ganau jatenak..." edo "belarra ekarri behar diau ta guazen belarra biltzea" eo. Segan egiteko gauza ez bagiñan, belarra bildu behintzat bai. Ta ganauakin, behiyakin ibiltzen giñan, gurdiya ta behiyakin, ta behiyak eamaten eo behiyai kontu iten eo beti [zeoze].

- Eta azpiak iten eta...

- Bai, bai, bai, bai. Ta eskola jun gabe´re urtearen buruan egun dexente. Batez ere udaberri aldean edo udan o, lan asko izaten zanean. Bi anai, bi zaharrenak behintzat, urte ta gutxin tartea degu, oso bata bestean atzetik, eta biok txandan ibiltzen giñan: "Gaur ni geratzen banaiz, bihar hi geratuko haiz etxean", txandaka, aitai laguntzeko. Ordun, eskolaa jun gabe geratzen giñan. O goizian jun ta atsaldian etxian eo alderantziz, goizian etxian ta atsaldian eskolaa jun edo hola. Baiño beti maixuak bazekila, maixuai esanda.

2. Maisua erdalduna baina oso jatorra

- **Erref:** DON-040/003
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Maisua erdalduna zen, baina oso maitea. Sekula ez zien kargu hartu euskaraz egiteagatik. Liburu batean batu ditu haren kontuak. Sei urterekin hasi eta 14 arte. Jolasak: kanikak, pilota, tiragomarekin.</p>

Transkripzioa

- Ta maixua euskalduna zan ala?
- Ez, ez, ez. Maixua ez zan /etzan/ euskalduna, baño orain egiten naizen liburuan jartzen ditut haren ixtoriyak, eta omenaldiya re egin zitzaionean ere bertso batzuk jarri genitun. Ez zen /etzen/ euskalduna, Aragoikoa edo usten det /ustet/ zala. Don Mariano Asanza. Baño oso... asko maite gindun harek... euskaldunok, asko. Eta gurekin jolasian ta fuboliak ta pelotan ta asko parte hartzen zun gure jolasetan ta gurekin. Eta esaten zuten ordun, eta oain e bai, maixuak erderaz edo euskeraz hitz egiten entzutean haurrak, ba, edo kaskarrekon bat edo beste edo behintzat ez zutela ondo ikusten euskaraz hitz egitea, baño harek guri sekula ez zigun /etzigun/ kargu hartu euskeraz hitz egiteagatik. Oso... alde hortatik, ta hango baserritarakin ta hizketan ta edozeñekin hitz egiten zun. Oso gizon jatorra zan neretzako. Bai.
- Ta zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
- Sei urterekin. Bai. Ordun, edadia hori zan. Sei urte baño lehenago ez zan / etzan/ hasten iñon, iñor eskolan. Ta orduako, nere anai zaharrena bazebillen harekin goatzen naiz nola jun nintzan goiz batian erderaz tutik ez nekila, baño seituan ikasi nun e! Bai, ez zait /etzait/ ahaztuko egun hura!
- Ta esan dezu zuen jolas...
- Sei urtekin hasi eta hamalau urtekin utzi. Eman ziguten, orduan ematen zutena 'certificado de estudios primarios' edo holako zerbait. Eta gero, etxian lanian. Bai.
- Esan dezu zuen jolasak ba kaniketara, pilotan...
- Bai. Pilotan, kaniketan ta gu esaten genun, ordun esaten gendun 'a coger', bata bestia harrapatzen edo 'a rescatau' edo... harrapatu eta hola eskua emanda. Orduan, fubolian ta pelotan ta... Fubolian ibiltzeko ta pelotan ibiltzeko materialik ez gendun izaten, ez baloik eta ez pelotik. Ta geok indako pelotakin ta. Edo tiragomakin txoriyak harrapatzen edo... eozertan. Ahal zan bezela.

3. Pilotak nola egiten zituzten

- **Erref:** DON-040/004
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:11:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotak nola egiten zituzten, barruan kortxoa sartuta. Gainetik, larrua. Santo

Tomas egunean errenta ordaintzera joaten zen aita, eta beti zerbait ekartzen zien. "Kizkia".

Transkripzioa

-Eta zuek indako pilotak... nola iten ziran pelotak?

- Nola egiten zian? Ba barruan kortxo bat... eozin botilla, kortxo bat borobildu, labanakin ta borobildu, forma eman ta geo barrenen hariyakin... "Hau hariyau hobia dek bestea baiño", ta hariya bueltaka-bueltaka-bueltaka pelota bere neurrikua egin arte, bai. Eta... hariya nundik sortzen genun? Ba... askotan etxian galtzerdiyak puskatuak izaten zian, berriyak baiño gehio noski, puskatutakuak. Ta haiek errex askatzen genitun, e... muturretik hasi ta tira hariyai ta errez askatzen, earki ikasi genun askatzen hariyak. Ta ama erritan: "Nun dek hemengo galderdiyai, bestia nun dek?". "Ez dakit, ama, ez dakit nun izango dan". Ta zea, pelota inda! Ta harekin egiten, ematen geniyon be neurriya, estu-estu ta kortxo, barruko kortxuak halako toke bat ematen zion, halako hots berezi bat ateratzen zun zea, pareta jotakuan edo, e. Eta gero, klaro, ikasi in genun ta, anai zaharrena artista zan hortan, larrua ere jartzen genion gaiñetik; larrua ere, zapata zaharren bat... zapatan mingaiña esaten diogu guk, zapatan mingaiña, barruan... ez dakit nola deitzen zaion erderaz. Mingaiña, zapatan mingaiña. -"Lengüeta".

-"Lengüeta", o. Bai, hori, hori. Ba hoik, zapata zaharren bati hoiek kendu ta eman forma pelota... Hortarako aitzak tarteka-tarteka, hola txekorria saltzen zunean edo, Santo Tomas egunean edo... errenta ordaintzea Donostira juten zan, ta eun berezi, seiñalatu hoietan beti zerbait ekartzen zigun etxea, ta askotan pelota bat. Ta pelota harekin bagenekin ze forma o egitura eman behar zitzayon ta geok josten aritzen giñan, larrua jartzen ta, guk indako pelotak, bai, bai. Klaro, bestela ez genun izaten ta. Baiño behin busti ezkeo akabo, ez zun baliyo.

-Ez?

-Su ondoan jarri lehortzen, su ondoan jarri ta hurrengo eguneako a, ba... boteka.

-Barkatu, e. Pelotan barrengo kortxo horri beste izenik...

-Kixkia.

-Kixkiya, ezta?

-Bai, bai. Kixkiyik ez genun. Bai, kizkiya, hoi izaten da, e...

-Gogorra da hoi...

-Hestiakin o... arkumeen hestiakin indako... oso gogorra izaten da bai, hori. Gutzako gogorregia seguraski. Baiño haiek, e, kizki hoiek, e... buf, oso berandu iritsi zian guregana. Ta kortxua, gauzik errexena kortxuakin. Kizkia, bai, arrazoi dezu. Kizki.

4. Umetako bihurrikeriak eta zigarroak

- **Erref:** DON-040/006
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Sagarrak lapurtzen ibiltzen ziren inguruko baserrietatik, kanpokoia beti hobea baita. Arto txurikinarekin bilduta, orbela erretzen zuten; arto bizarrik ez. Aitak berak egindako zigarroak ematen zizkien egun berezietan.

Transkripzioa

-Etxian ez zanean aldameneko sagastira edo baratzeria o joaten giñan, ta... kuriosua da: beti kanpoko fruta etxekua baiño goxuagua. Ta korrika. Bueno, etxian fruta den... aukera izaten zan, baiño... ez dakit, beti kanpoko zea hori, jateko irriki hori edo... Bai, bai, ibiltzen giñan, ez pentsa gu oso... xantu-xantuak giñanik!

-Eta arto bizarrik-ta erretzen ta halakorik?

-Arto bizarrik erre... nunik ez naiz gogoratzen, baiño arto hostua o txurikiña, txurikiña deitzen zaio artuan, zea... artoburuan ze hoi, hosto o txurikiña, e. Harekin bildu, harekin bilduta zea bai, e... orbela. Orbela txikitu, ta han bildu, eta harekin aritzen giñan, bai. Eta beste gauz bat, e... Gure aita zana, hua aurreatua zan, bueno aurreratua, e... berrizalea zan ta guri ematen zizkigun kutizi asko, dexente ematen zizkigun; ta hoietako bat: zigarroik ez zan izaten. Iñok ez zun erretzen, beak ez zun erretzen ta aitonak'e ez. Eta Gabon egunean edo herriko festetan edo... ordun guri zigarro bat ematen zigun erretzeko; beak ein, beak zeatu, zigarrua in ta «ala, erre, erre!», ta eztulka ta hasten giñan. Beharbada horregatik: «Konturatu zaitezte hau ez dala ona». Arto bizarrik'e hoi jende askok esaten du, arto bizarrik erretzen... ni, ni ez naiz gogoratzen hori in nunik sekula.

5. Aitak Goierriko ohiturak ekarri zituen Altzara

- **Erref:** DON-040/008
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aita berrizalea zen. Gaintzakoa zen, eta Goierriko ohitura asko ekarri zituen Altzara. Gazta egiten zuen, sokak, gurina... Txondorra ere egin zuen. Aparejuak konpontzen zituen. Gaztaina mentuak ekartzen zituen txertatzeko. Eztia ere ateratzen zuen.</p>

Transkripzioa

Aita zana gauza —esan det— berritzaillea zan ta Goierriko gauz asko ekarri zitun honea; han ikasitakoak hemen egiten zitun. Bea artzantzaz ibilia zan ta ordun gazta egiten, sokak egiten, guriña o mantekilla're bai egiten zun etxeko behi-esneakin, ardirik ez zan ta. Gero txondarra, txondarra're egin izandu du, egin izan zun gure aitak. Egurra bastante bazan garai hartan, baso dexente ta txondarra're... Gero edozein aparejuak eo "apejuak", "aperos". Arrantzako "aperos". Aparejuak eo. "Aparejo" ez dakit... Haik, behintzat, haiek konpontzen-ta're. Eta gero gaztaiña're dezente bazan gurian eta Goierritik ekarri, zeak, mentuak. Mentua da txertatzen danian sartzen zaion zea, enborrai, mentua, ez dakit erderaz nola dun izena.

Txertatu, e, gaztain klase bat. Hemen gaztaiñak txertatu gabe ematen du, baiña ez du ona ematen. Ordun, gure aitona zana, Gaintzakoa —aita´re Gaintzakoa— hua etortzen zanian harek ekartzen zizkion mentuak txertatzeko zeak. Txertatuta. Gaztaiñak txertatzen ta danetatik iten zun prueba. Hori bai, hango gauzak. Gero erlezaintzan ere bai. Eztiya´re iten zun, ateatzen zun eztiya´re. Hemen nik ez nun ikusten iya iñor, hola, lan hoiek egiten. Eta hemengo gauzak ere hara badakit eramaten zitula, baratzako gauzak-eta nola egin behar zian ta, han baratzik ez baita ibiltzen Goierri alde hortan /aldiortan/. Oso gutxi. Etxeko pasadizua egiteko, ba, ez dakit aza batzuk edo... tomate ta holako gauzik... O porru batzuk o zerbait bai. Baiño baratzeko gauzak´e han erakusten-ta uste det aitzen zala. Bai, hortan ez zun diru asko irabaziko, baiña gauz asko probatu bai.

6. Sokak egiten, zaldi zurdekin

- **Erref:** DON-040/009
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Sokak nola egiten zituen aita, behien eta zaldien zurdekin. Haria egiten zuen, eta gero bihurritu. Sokak zertarako ziren. Uztarrían "burutakoa" lotzen. Auzokoei ere egiten zizkien sokak.</p>

Transkripzioa

- Sokak behiaren zurdearekin; behien isetseko illea, “zurdea” deitzen zaio. Eta zaldi-illea ere bai. Gurean ez zan zaldirik, baiño auzoan bai. Ta zaldiyak isetsa luzea izaten du ta zurdea ere bai, luzea. Eta horregatik esaten zun sokak iteko zaldi-zurdea bezelakorik ez zala, luzea zalako. Hariya iteko asko laguntzen zion horrek. Eta behi eta zaldi zurdeakin [ez dakit] nahastuta edo ez dakit nola egiten zun, baiño hariya beak egiten zun ta soka nola egiten zun, ba: lehendabizi hariyai metro asko. Hari mehe bat, tankera hontakoa edo hola. Eta gero bi palanka jarri; bat, segun ze luzerakoa nahi zun soka, ba, palanka bat jarri han, bestea hemen jarri ta bueltak emanez, bihurrituz, bihurrituz, bihurrituz. Zea, bihurrituz. Lehenbizi holako bi jarri, gero bikin beste bi jarri ta gero lau ta azkenean zortzi o ez dakit zenbat harikin egiten zun soka. Baiño soka ederrak, e! Zertarako? Ba, etxean belarra bizkarrean ematen zan; sortak iteko. Bizkarrean ibiltzen genun guk gehiena, malkarra o aldapa zan ta. Eta batipat behi... behi-pare o ... uztarriyan gaiñeko ardi... “burutakua” esaten geniyon, ardi larruakin. Uztarria ta eriak tapatu ta hua lotzeko. Uztarriyan zea hori, gaiñeko hori.

- Kopetekua?

- Kopetekua lotzeko zeak dia...

- A! Beste...

- Bai, uztarriyak ditun kurteriak. Baiño hau da burutakua. Ardi-larru hori uztarriyan gaiñian jarri ta pasa, hola, kruzatuta pasa ta hua lotzeko. Ta harek, soka horrek, soka illuna izaten zan normalian, ta burukua, berriz, ardi-larru ille txuri-txuriyakin, oso dotore geratzen zan. Oso dotore. Eta auzoko baserrietan ere, klaro, zurdiak... “Zuek behi-zurdeak jaso ta nik denbora detenian —negu partean edo, hola, lanik ez zanean—nik egingo dizuet soka”. Ta auzokoai’re dexente. Beti hola aitzen zan beti.

7. Txondorra eta garia

- **Erref:** DON-040/010
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:23:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Txondorra behin ikusi zuen etxean, eta ez zen ondo irten. Egurra ez zen aproposa. Pagorik ez zen inguruetan. Ogi eskasia zen garaian, garia ereiten zuten. Txoriak ezin uxatu. Txorimaloa. Aitonak-eta baserriaren nagusiari ematen zioten gariaren erdia.</p>

8. Errenta ordaintzera Donostiako Parte Zaharrera

- **Erref:** DON-040/011
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:23:29. **Bukatu:** 00:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santo Tomas

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Errenta nola ordaintzen zuten, Donostiako Parte Zaharrean. Oilaskoak, arrautzak, dirua... nagusiarentzat. Bakailao lehorra eta bazkaria ematen zieten trukean. Maizterrak han elkartzten ziren.</p>

9. San Martin azokara plazara

- **Erref:** DON-040/012
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:27:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Berdura eta esnea saltzen zituzten, San Martin azokan. Txekorrak hazten zituzten. Zestera eramaten zuten buruan. Txomiñenean Hernaniko tranbia hartzen zuten. Gutxik zuten zaldi-karroa. Esne gehiena Ubako komentu-erreformatoria era eman zuten. Behi gazta.</p>

10. Gerra eta gerraostea: uza entregatu behar

- **Erref:** DON-040/014
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:27:51. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerrako oroitzapenak. Sanatoriora eraman zituzten, eta eskaileretan pasatu zuten gaua. Etxean ere sartu ziren balak. Ukuilutik txekorra eraman zieten. Egunero babarrunak, igandetan garbantzua. Patata, babarruna entregatu beharra gobernuari.

11. Errazionamendua eta errotara joan behar

- **Erref:** DON-040/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:06. **Bukatu:** 00:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamenduko kartilarekin joaten zen, San Martingo plazan. Olio gutxi. Urte gogorrak. Egunero taloa, eskolara joan aurretik. Errotara hirin bila, artoarekin. Astorik ez zuten.</p>

12. Arotzeria ikasten

- **Erref:** DON-040/017
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:38:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Arotz ofizioa ikasten hasi zen 18 urterekin, etxean apopilo zegoen gizon baten bidez. Arotzeria txiki batean, dena eskuz. Tresnak. Altzariak egin, jergoiak konpondu... Excelsior hotela.</p>

13. Etxean ere arotz lanak egiten

- **Erref:** DON-040/018
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:38:41. **Bukatu:** 00:41:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lanbideak » Arotzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Arotz lanak etxean ere egiten zituen: area egin zuen, aulkiren bat ere bai. Tranbian joaten zen lanera hasieran eta gero bizikletan. Soldaduskatik bueltan, motoa.</p>

14. Soldadutza Afrikan

- **Erref:** DON-040/019
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:41:12. **Bukatu:** 00:43:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza Afrikan egin zuen. 19 euskaldun zeuden, eta horrek asko lagundu zion. Kuartelean garbitasunik ez zuten, guardiak egin beharra eta lo falta. Urte eta erdi. Hernia ebakuntza egiteko hilabeteko baimena eman zioten.</p>

15. Bertsozaletasuna etxetik

- **Erref:** DON-040/020
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:43:58. **Bukatu:** 00:47:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Soldadutzan hasi zen bertsoak idazten, baina bertsozaletasuna txikitatik zuen. Aitak bertsotan egiten zuen, eta lagun bertsolariak zituen. Aitona beti kantuan zebilen. Aitak bertso idatziak ematen zizkion buruz ikasteko.</p>

Transkripzioa

-Garai hartan hasi ziñan zu bertsuak idazten eta, [...] bialtzen...

-Bai halaxe da.

-Baiña aurretik bertsozaletasuna....

-Bueno, bertsozaletasuna txiki-txikitatik, gure aita zana, ta aitona zana, ta ama zana, denak zian bertsozale amorratuak eta guk ere, "pues", beti. Hola familiarteko otorduetan ta, barrikote bat eo eiten zala o gaztain erriak jaten genitula edo beti aitzakin bat izaten zan ta. Bai, bertsozaletasuna txiki-txikitatik, ba, kantatuz, ba, aita, aita bastante aitzen zan bertsotan, eiten zun. Ta aitan launak'e, bazitun bertsolariak, aitzen zianak behintzat eta, mutiko koskorretan ni oso gustoa eoten nintzan haiyei entzuten.

-Ta zeintzuk zian?

-Ez, han auzoko, ez hola, izen haundikoik ez e? Auzoko Antonio ta, beste "Frantsesa" deitzen ziotena, bueno, frantsesa zan berez. Ta oso gustoa eoten nintzan ta, geo aitona zana're ia eun guziyan, oso kantariya zan. Bertso zaharrak, Biliintxen bertsoak ta, Xenpelarrenak eta ez dakit zeñenak, bertso, "Markesaren alabak", bertsoak eta. Aitak asko zekizkin, bertso asko buruz, ta nei eakusten asko saiatzen zan. Berak idazten, ondo idazten zun, oaindik'e badauzkat nik harek idatzitako, zeak, paperak. Ta idatzita ematen zizkidan, ta nik, lanea hasi nintzanean, tranbian, tranbian ni joan bitartean, ikasten. Ta nik, dexente ikasi nun buruz, aitai ta. Baiño bertsuak kantatzeko ez det sekula izan abildadeik, ez det esango kantatu ez dedanik, baiño ez, ez, ez det balio. Ta geo soldaduskan, idazten hasi nintzan, zerbait, ez nekin idazten ere, euskeraz idazten. Oraindik, paperak eta hor dauzkat nola idazten nun, baiño gogua, afiziyua izan ezkeo gauza asko egiten da, e. Harrigarriya da barruko gogo horrek ematen dizun indarra. Ta, hala, beno, soldaduskatik etxea bialtzen nitun bertso batzuk, ta engaiñatzeko pixkat, diru pixkat bialtzeko ta, ez dakit zer ta, holako kontuak. Ta hoi pasa zan, soldauskako denbora hori ta, ta gero, aizu, etxea etorri ta lanian, ta lana, ta lana.

16. Ezbehar baten ondoren, bertsoak idazten hasi zen berriro

- **Erref:** DON-040/021
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:47:02. **Bukatu:** 00:49:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>33 urterekin, ezbeharra izan zuen: igogailua hautsi, eta 6. solairutik behera joan zen. Luzaroan geldi egon behar izan zuenez, berriz hasi zen bertsoak idazten. Basarriri bidaltzen zizkion, irratian kantatzeko eta egunkarian argitaratzeko. Lagun askori jarri zizkion bertsoak.</p>

Transkripzioa

-Ta gero berriz, lanean nenbillela, hogeita hamahiru urtekin, izan nun

ezbeharra. Hementxe, etxe hontatik behera, asentsorea, zeak, kontrapesua puskatu ta behera jun zan.

-Seigarren pisutik behera?

-Bai, ta ordun izan nun denboa askuan geldi eon beharra ta, ordun berriz hasi nintzan nere gauzak kontatzen. Ezbehar, akzidente, akzidente horren buruzko zeak, gorabeherak eta, hala hasi nintzan berriz'e. Ta bueno, ta osatu bitartean, urte t'erdi eo pasa nitun hanka puskatu ta bizkarrezurra're ya bertebra bat puskatu, lehertu in zitzaian ta, kontu hoiek denak liburuan badatoz.

-Bai.

-Eta hala, pixkana-pixkana, gero Basarriri bialtzen nizkion, irratan kantatzeko ta, zean, egunkarian eo, egunkaria, periodikuan, "Diario Vasco", ez, "La Voz de España" zan. Ordun "La Voz de España", geo "Diario Vasco"n hasi zan ta, hara bialtzen nizkion ta harek argitaratzen zizkidan, zean, periodiku hortan, eta oso gustora. Ta geroztik, asko, asko idatzi det, bertso asko. Ta gustoa, gustoko lana det hoi're. Ta geo etortzen zizkidan, launak eo norbaiti omenaldiya in behar zitzaiola eo, norbait hiltzen zanian'e bai. Nik lagun dexentei jarriyak badazkat, liburuan azaltzen dia, bertsuak. Ta batzutan eskatuta, beste batzutan, berriz, nere borondatez, baiño hoi, gustatzen zait. Nik ez dakit iñork jarriko dizkidan, gaur eo bihar baiño, ni behintzat besteei jartzen saiatu naiz.

17. Bertso giroa, batez ere festetan

- **Erref:** DON-040/022
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:49:27. **Bukatu:** 00:53:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Bertsolariak eta sagardotegi giroa. Aitarekin sagardoa edatera joaten ziren, baina bertsolariak Martuteneko festetan entzuten zituzten. Lehenengo entzun zituenak: Zailburu eta Telleritxiki errenteriarra. Geroago, Uztapide, Mitxelena... Zepai, Arozamena, Garmendia, Etxeberria.</p>

18. Gai-jartzaile nola hasi zen

- **Erref:** DON-040/023
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:53:00. **Bukatu:** 00:56:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Gai-jartzaile nola hasi zen, apaizaren bitartez, Loiolako jaietan. Hark eman zizkion aholkuak. Duela gutxi arte ibili da horretan.</p>

19. Mezetan irakurtzen, euskara irakasten eta irratian

- **Erref:** DON-040/024
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 00:56:04. **Bukatu:** 01:01:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Irratian ere ibili zen. Ama hil zenean, bertsoak jarri zizkion eta irakurri. Bikarioak irakurgaiak egiteko eskatu zion aurrerantz. Alfabetatu non egin zen: hasieran Agustin Minerrekin, Antiguan, eta gero Oñatibiaren akademian. Euskarazko eskolak ematen hasi zen, Morlansen. Gero, irratian ere bai, berriak ematen.

20. Irratia eta artikulugintza

- **Erref:** DON-040/025
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:01:35. **Bukatu:** 01:03:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Zentsura egongo zela dio, baina uzten zuten irratia egiten.
Basarri, Oñatibia, Maria Dolores. Aita Zabalen bidez hasi zen El Diario Vasco egunkarian idazten. Kirolari eta bertsolaritzari buruzko iritzi artikulak.</p>

Transkripzioa

-Zentsurarik edo, [...] garai hortakuz edo bai, bazeon...?

-Bai, ordun izango zan, ta baldin bazan gue, gure buruek iten zuna zea zan, Jon ez, ez Manu, Manu, Manu Oñatibia, hil zan hua're, eta haren bitartez, ta baserrita're, baserrita Maria Dolores ta, hor bazian beste bi o hiru're, haik'e irratsaio batzuk egiten zituzten euskerazkoak, uzten zuten eh, politikan ta sartu gabe noski, eh, kontuz kontuz, bai guk ez gendun izan honelako trabik, alde hortatik. Ordun euskeraz eakusten, irratia, eta geo idazten zean, Diario Vascon, hemen ere oan gutxi hil dan Aita Zabalak, Aita Zabalen bidez: "Aizu, zean Diario Vascon esan diate euskeraz hola idazteko jendea behar dala ta, zuk ingo zenduke hori?". Ta: "Ez dakit ingo deten baiño", ta hala hasi nitzan ta, zortzi urte o pasa genitun hartan'e, nik kirolak eta pelota ta, fubola're bai ta, geo bersolaritzari buruz'e bai ta, hola baiño ne, prestatutako... burutik ateatzen zitzaien gauzak, ibilaldi bat, ta holako artikulo asko, asko idatzi nun zortzi urte hortan. Horreatik esan det ezetz esaten ez dakitela ta geo: "Jo ni ze arraiotako sartu nak ni hemen". Geo pasatzen nitun nerbiyuak eta gauzak baiño, behintzat aurrea beti, bai, ta dena beti euskeraz jakiña.

21. Euskara eta Altzako baserriak

- **Erref:** DON-040/026
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:03:41. **Bukatu:** 01:05:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Etxean euskaraz egiten zuten beti. Gurasoek bazekiten gaztelaniaz ere. Eskolan erdaraz egiten zuten, baina lagun artean kalean euskaraz. Altza baserriz osatuta zegoen. Desagertutako baserriak. 19 baserri bota zituzten Intxaurrondon, 1968an edo.

22. Altzako tabernak

- **Erref:** DON-040/027
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:05:59. **Bukatu:** 01:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Ubegi baserri inguruan zer zegoen. Intxaurrondoko Otxoki tabernan biltzen ziren aitona eta. Arjel Etxeberri taberna ere bazegoen, Altza kaskotik aparte. Altzan bertan, Martilun. Lauaizeta. Ganaduen kofradian hilean behin biltzen ziren baserritarrak.</p>

Transkripzioa

-Hor Altzan, zuen baserri inguruan-eta, zer zeon lehen? Nolakua zan inguru hori? Baserriyak eta baratzak-eta bakarrik, ala bazeon tabernarik, dendarik-edo?

-Bai, hor Intxaurrondoko baserriya, hua're bota in zuen baiño, Otsoki, Otsoki taberna zan, taberna aspaldikua, han biltzen omen ziran gure aitona zana ta, aita ez zan hara askotan juten baiño aitona zanak-eta joera bai, Otsoki taberna. Ta geo, geoztik beste bat'e jarri zan, nik ezautu nun, Argel, Argel Etxeberri, bi taberna hoiek, zian hola Altza kaskotik, herritik, aparte. Altza bertan'e bai, Martilun ta, geoztik hor Cuatro Vientos o Lau Haizeta, hor'de taberna dao oain, baiño hor ez zan... Geo Martutenen, Lazunenen'e bai, ardua saltzen zuten, han'e ibiltzen zian baserritarrak-eta. Gue aita zana, Altza juten zan ganaduen kofradia edo, hermandadia o ez dakit nola deitzen zaiyon, ganauak eukitzen zituzten apuntatuta, ta hillian behin edo, biltzen zian baserritarrak, kontuak-eta gauzak eramateko ta egiteko ta. Gaiñekuan aste guzian ez zan baserritarrik, taberna juten, normal behintzat.

-Hori asteburutan, juten ziran?

-Bai, asteburutan'e batzuk, ez denak.

-Nahikua lan izaten zan orduan baserriyan?

-Bai, gue aita zana ez zan tabernazalea, launartea bai asko gustatzen zitzaion baiño, taberna hola, juteatik jun ez zan, ez zan juten. Zerbaite, billeran bat eo zanian, gaiñeakuan ez zan...

23. Ura eta Urumea ibaia

- **Erref:** DON-040/028
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 01:08:04. **Bukatu:** 01:12:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Beti ezagutu du ura baserrian. Aurretik, Urumeatik eramaten zuten ura. Lehen, angulak zeuden ibaian, eta aingirak. Aitonak bazekien igerian. Kristobaldegi komentuari parean, gobara egiten zuten emakumeak. Pardela.

24. Urumean gabarrak, hondarra ekartzen

- **Erref:** DON-040/029
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 01:12:29. **Bukatu:** 01:15:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Urumeako txalupak. Gabarretan ekartzen zuten hondarra. Azpiak egiteko ona da, garoaren orde, eta baratzerako ere bai, lurra gozatzeko. Eraikuntzarako; Egiako depositua.</p>

25. Txekorra saltzea eta feriara joatea

- **Erref:** DON-040/031
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:15:56. **Bukatu:** 01:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txekorra etxetik saltzen zuten, hazitakoan. Harakinari esan, eta hara joaten zen. Tratua egiten zuten. Erraldea, bost kilo. Hiltegia. Aurretik feriara joaten ziren haragiaren prezioak jakiteko, Hernanira. Landareak eta tresnak.

26. Ferratzailea, Egian

- **Erref:** DON-040/032
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:17:58. **Bukatu:** 01:20:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Ferratzailea: Egian zegoen gertukoena. Aitarekin joaten zen, bi behirekin. Pasadizo bat kontatzen du: zaldi-karroa pasatzean, behia ikaratu eta soka eten zuen; ihesi joan zen Atotxaraino.</p>

27. Erromeriak eta jaiak

- **Erref:** DON-040/033
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:20:40. **Bukatu:** 01:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriara joateko denbora beti ateratzen zuten, igandetan. Oialume, Irubide, Txikierdi. Bilerak. Tranbian eta oinez joaten ziren Astigarragara. Auzoetako eta inguruko herrietako jaiak.</p>

Transkripzioa

- Izaten zenuen astirik erromerietara-eta juteko dantzara ala ez? Baserriko lanekin eta...

- A! Hortarako beti.

- Eta nora juten zineten?

- Erromerira? Hola, erromeri fijuak igandetan bakarrik izaten zian, jakiña. Gu gehienbat Oialume. Oialume. Oaindikan ´e uste det segitzen dutela o segitzen dula.

- Bai, sagardotegi, jatetxe...

- Bai, ta gero dantzatokiya haundiya.

- [...] Oialume zuk Astigarragakua esaten dezu.

- Bai, Ergobi o. Oialume. Ta beste bat da Oianume. Hua Urnietakua. Bai. Bi gauza.

- Tartian behin irekitzen [...] Oialume oain, ez dakit segitzen dun igandero-igandero lehen bezela.

- Ez? Ez dakit. Ba, hara juaten giñan asko. Ta gero, berriz, Irubide o, Lasarteko... Errekalde ta Lasarte bitarte hortan zan beste dantza... hola... billera. Billera esaten zitzaion. Eta Txikierdin ´e bazan beste bat, Oiartzun inguruan. Hara juteko ´re motua o bizikleta o bihar zan. Baiño Astigarragaa juteko, Oialumera juteko, tranbian o autobusian ibiltzen giñan. Oiñez ´e bai, behin baiño gehiotan. Hua izaten zan. Oain, auzoko jaietan, ba, auzo guztietara juten giñan: Altza, Astigarraga, Martutene, Hernani... Donostia aldea gutxiago. Baiño Loiola ´re bai ta. Ez genun huts egiten.

28. Bizikletan joan, eta dantza egin

- **Erref:** DON-040/035
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:22:57. **Bukatu:** 01:25:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Bizikletan ere joaten ziren erromerietara, mutilak. Neskak han izaten ziren. Dantzan bere kasa ikasi zuen. Hasieran, lotsatuta. Oialumeko soinu-jotzailea. Helduta dantza egitea libre zen; Igeldon ez, zaintzaile bat egoten zen. Argazkian, Igeldoko irudi bat.</p>

Transkripzioa

- Juten ziñatela tranbian edo autobusez.
- Oialumea. Oialumea autobusean edo. Geo bizikletak-eta erosi genitunean, ba, ordun juaten giñan urrutixeago ere.
- Kuadrillan joaten zinaten? Mutil kuadrillan?
- Bai, bai. Mutillak bakarrik juten giñan. Gero neskak han izaten zian.
- Eta dantzan nola ikasi zenuen dantzan?
- Ibilita, hasita. Lehendabizi hasteko sekulako zea izaten dezu bildurra o lotsa. Lotsatiak [giñen] gaiñea oso. Eta, jo. Sueluan lehendabizi hasten giñan. Oialume hortan soiñujolea zan, soiñujotzailea, eta sueltoko piezak gutxi jotzen zitun; gaiñekua heldukoak, heldutakoak edo helduta dantzatzeakoak. Eta beti desiatzen egoten giñan sueltokoa noiz joko, dantzan hasteko. Illundu arte´re ez giñan hasten aurrenetik. Igual baxoerdi batzuk hartu dantzan hasi baiño lehen ta... hasi iten giñan. Ta behin hasi ezkerro, berriz, jo, ezin gelditu!
- Eta ez zegon galerazita helduan dantza egitea?
- Ez, ez, gure garaian ez. Nik ez det ezagutu hori. Guri ez zigun iñok galarazi. Igeldon bai, Igeldon galarazten zizuten gehiegi arrimatzen baldin baziñan eo hola, bai. Han ibiltzen zan zea bat, tipo bat, [denen] tartian.
- Apaiza?
- Apaiza ez. Baiño orduko zensura, orduko zeak hala izango zian ta. Hola, parejan bat ikusten baldin bazun gehitxo zeatuta, bizkarrian jo ta. Bai, bai, bai, hoiak egiak dia.

29. Kuadrillan, denak dantza zaleak

- **Erref:** DON-040/037
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:25:35. **Bukatu:** 01:26:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Kuadrillan denak ziren dantza zaleak. Soltean mutilak bakarrik ere ibiltzen ziren batzuetan.</p>

Transkripzioa

Asko ibiltzen giñan ta oso... gure kuadrillan denok izan gea dantzariyak. Ez genun oso ondo oso txukun egingo, baiño asko gustatu zaigu dantzan ibiltzea, bai. Sueltuak mutillak bakarrik igual ibiltzen giñan gu. Oiolumatik bueltakuan edo, hor taberna batian biltzen giñan Martutenen; holako ordutan gutxi gorabehera, lehenbizi juten zanak itxoin bestiai etxera gero alkarrekin juteko, baserrira. Gure etxia bi bizitzako etxia zan eta alkarrekin ibiltzen giñan bi bizitzetako mutillak. Eta tabernan jaietan soiñua baldin bazan ta neskik ez, gu, mutillak, fuego! dantzan. Gure dibertimentua o gure zea, dibersioa, huraxe zan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com